ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

LAS CARRERASEKO (ABANTO ZIERBENA) "EL CAMPON ETORBIDEAN APARKALEKUA EGOKITZEKO ETA OINEZKOEN BIDEAK HOBETZEKO OBRAK" PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA (SPKL 159.6 ART.)

1. Kontratuaren helburua.

Kontratuaren helburua da Administrazioak onartutako proiektuaren barruko obrak gauzatzea. Pleguaren Karatulan daude jasota obra horiek. Prestazioaren exekuzioa Plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan jasotzen diren baldintzetara egokituko da, kontratuaren parte baitira.

2. Helburua eta bete beharreko behar administratiboak:

Kontratuaren helburua eta bete beharreko beharrak Pleguaren Karatulan adierazitakoak dira.

3. Araubide juridikoa.

3.1.- Kontratua administratiboa da. Obra idatzitako obra-proiektuaren arabera gauzatuko da, memoriaren arabera barne, obra-unitateen parte diren oinarrizko materialen edo elementuen deskribapenari dagokion guztian. Obra-proiektua, Administrazioko Klausula Partikularren Plegu hau, pleguaren Karatula, Baldintza Teknikoen Plegua eta haren eranskinak kontratuzko dokumentuak dira eta, ondorioz, aldeen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzte.

3.2.- Kontratazioa dokumentu hauetan ezarritakoaren arabera arautuko da: plegua, plegu honen karatula, Baldintza Teknikoen Plegua, 2014ko otsailaren 26ko Europako parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak Espainiako Ordenamendu Juridikora besterentzeko Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legea (aurrerantzean, SPKL), Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzeko 2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua eta estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzen duten eta aplikagarriak diren beste edozein xedapen.

Pleguaren eta Baldintza teknikoen Pleguaren artean desadostasunak baldin badaude, Administrazio Klausulen Plegua eta bere ezaugarrien koadroa gailenduko dira. Bertan daude jasota kontratuaren aldeen eskubideak eta betebeharrak.

Plegu honetan eta bere karatulan ezarritakoaren artean desadostasunak baldin badaude, karatulan ezarritakoa nagusituko da.

Halaber, administrazioak onartutako proiektuko dokumentuen artean desadostasunak baldin badaude, proiektuaren parte den Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan ezarritako lehentasun-ordena jarraituko da eta, bertan ez bada ordenarik finkatzen, Zuzendaritza Fakultatiboak adierazitako ordena jarraituko da. Ordena horrek zehaztuko du kasu bakoitzean zer dokumentu nagusituko den.

Kontratua, hari atxikitako dokumentuak edo adostutako exekuzioan aplikagarriak izan daitezkeen Administrazioak emandako mota guztietako jarraibideak, pleguak edo arauak ez ezagutzeak ez du salbuetsiko enpresaria bere betebeharrak betetzeko betebeharretik.

3.3.- Kontratua PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTU bidez esleituko da, SPKLren 159.6. artikuluan ezarritakoaren eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko edo haren ordezko araudiko dagozkien artikuluetan ezarritakoaren arabera.

IFK: P-4800200-J

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

Erabat baztertzen da lizitatzaileekin kontratuaren terminoak negoziatzea.

4. Kontratuaren aldeak.

A) Administrazio kontratatzailea.

Kontratazio-organoa.- Plegu honen Karatulan adieraziko da kontratazio-organoa.

Kontratuaren arduraduna.- Plegu honen karatulan adierazitako pertsona.

Kontratatzailearen profila.- Plegu honen Karatulan adierazitakoa.
Erakundearen webgunetik sar daiteke eta kontratazio-organoaren kontratu-jarduerari buruzko datuak eta informazioak jasotzen ditu.

B) Kontratista.

Kontratatzeko gaitasuna.- Abanto Zierbenako Udalarekin kontratatzeko aukera izango dute jarduteko erabateko gaitasuna duten eta kontratatzeko debekurik ez duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek, haien sailkapena edo, hala badagokio, karatulan eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute. Araudi aplikagarriak hala eskatzen badu, lizitatzaileak bere erakundearen baldintzak, bere etekinen xedea, finantzaketa-sistema edo zehazten den beste edozein baldintza egiaztatu beharko du prozedurara aurkezteko. Halaber, enpresariek kontratuaren xede-jarduera edo -prestazioa egiteko eska dakiekeen gaikuntza enpresariala edo profesionala izan beharko dute.

a) Pertsona juridikoak: haiei dagozkien estatutuen edo fundazio-arauen barruan sartzen diren prestazioak gauzatzeko kontratuak esleitu ahal izango zaizkie.

b) Enpresa komunitarioak edo Europako Ekonomia Estaturen gaineko Hitzarmena sinatu duten estatuak: Abanto Zierbenarekin kontratatzeko aukera izango dute, haien herrialdeko legediaren arabera, dagokion prestazioa egiteko gaituta daudenak.

c) Enpresa ez komunitarioak: Nazioarteko hitzarmenetatik eratorritako debekuak alde batera utzi gabe, txosten baten bidez justifikatu beharko da jatorri-estatuak onartzen duela Espainiako enpresek sektore publikoko erakundeekin egindako kontratazioetan parte hartzea.

d) Enpresa-elkarteak: Abanto-Zierbenako Udalarekin kontratatzeko aukera izango dute kontratu horretarako eratzen diren Aldi Baterako Enpresa Elkarteek, eta ez da beharrezkoa eskritura publikoa egitea kontratua hari esleitu arte. Halaber, kontratuak eragindako eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar beste ahalmen duen ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko dute hura amaitu arte; halere, zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko ahalorde mankomunatuak ere eman ahal izango dituzte.

Aldi baterako enpresa-elkarteen iraupena eta kontratuaren iraupena berdinak izango dira.

5. Kontratuaren estimatutako balioa eta kontratuaren lizitazioaren aurrekontua.

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Administrazioak kontratu honetarako estimatutako balioa Karatulan ageri dena izan beharko da, BEZik gabe.

Administrazioak kontratu honetan egin dezakeen gastuaren gehieneko aurrekontua Karatulan ageri dena da.

Aintzat hartuko da Udalak onartutako aurrekontuaren barruan daudela kontratistak kontratatutako obrak gauzatzeko egin behar dituen gastu zuzen eta zeharkako guztiak, zerga eta lizentzia mota guztiak eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikagarriak diren bestelakoak.

Karatulan ageri dena da eskaintzen oinarrian egongo den lizitazio mota eta zenbateko altuagoa duen edozein eskaintza alde batera utziko duena. Hobekuntzak beherantz egingo dira, eta zenbateko zehatza eta jakina esleituko da.

Lizitatzaileen eskaintzek zehaztuko dute kontrataren prezioa. Kontratua gauzatu bitartean indarrean egongo diren unitate-prezioak onartutako proiektuarenak izango dira, hala badagokio, esleipenaren murrizketa-koefizienteak eragindakoak.

6. Aurrekontu-kreditua izatea.

Kontratu hau betetzeko Administrazioak dituen betebehar ekonomikoei erantzuteko beharrezko kreditua existitzen da, eta bere aurrekontu-esleipena da Plegu honen Karatulan agertzen dena.

Kontratazio-espedientea hastean aurreikusitako data atzeratzen bada, baimendutako etenaldiak egiten badira, epeak luzatzen badira edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiren batengatik kontratuaren administrazioko klausula partikularren pleguan ezarritako urterokoak eta zerbitzuen ohiko garapenak ordena ekonomikoan ezartzen dituen behar errealak ez baldin badatoz bat, kontratazio-organoak aipatutako urteroko horiek berregokituko ditu Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurretiazko tramitazioaren kontratazio-espedienteetan, dagokion ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa izatearen araberakoa izango da esleipena.

7. Kontratuaren iraupena.

Kontratua exekutatzeko gehieneko epea Plegu honen Karatulan finkatuko da eta ez du eraginik izango esleipendunak eskainitako epean, hala baldin badagokio.

8. Kontratazio-espedientearen tramitazioa.

Kontratazio espedientearen tramitazioa arrunta, presazkoa edo larrialdikoa izango da, Plegu honen Karatulan adierazitakoaren arabera.

Presazkoa.- Presazko kalifikazioa duten espedienteak tramitatzeko, espediente arrunten prozedura bera jarraituko da, honako berezitasun hauekin:

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

a) Tramitazioan esku hartzen duten organoek aztertzeko garaian lehentasuna izango dute espedienteek eta bost eguneko epea izango dute organo horiek txostenak igortzeko edo dagokien izapideak egiteko.
b) SPKLren 159.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, SPKLren 119.2 artikuluak aipatzen dituen epeak ez dira murriztuko.
c) Kontratua exekutatzen hasteko epea ezingo da hilabete batetik gorakoa izan, kontratua sinatzen denetik hasita.

Larrialdia.- Larrialdi-espedienteek ezohiko erregimen hau izango dute:
Kontratazio-organoak ez du administrazioko espedientea tramitatzeko betebeharrik eta beharrezko exekuzioa agindu dezake, izandako jazoera zuzentzeko, beharrari erantzuteko edo bere xedea modu librean kontratatzeko, osorik edo partzialki, SPKLn ezarrita dauden baldintza formalak bete beharrik gabe (kreditu nahikoa izatearena ezta ere). Akordioa onartzean aurrekontua ezarriko zaio.

Prestazioak exekutatzen hasteko epeak ezingo du hilabete batetik gorakoa izan, aurreko paragrafoan aurreikusitako akordioa ezartzen denetik hasita. Epe hori gaindituz gero, prestazio horiek kontratatzeko prozedura arrunt bat tramitatu beharko da.

IFK: P-4800200-J

9. Esleipenaren prozedura.

Kontratu hau SPKLren 159.6 artikuluan aurreikusitako PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTUAREN bidez esleituko da, esleipen-irizpide bakarra edo esleipen-irizpide ugari kontuan hartuta, karatulan xedatutakoaren arabera, eta orri hauetako hurrengo ataletan ezarritako baldintzen eta betekizunen arabera, eta SPKLren 145., 146. eta 159. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Esleipen-irizpide horiek kontratuaren helburuarekin zuzenean lotuta egon beharko dute.

Eskaintza, betiere, esleipen-irizpide kuantifikagarrien arabera ebaluatuko da, pleguetan ezarritako formulak aplikatuz soilik.

Prozedura irekian, interesa duen enpresari orok aurkez dezake proposamen bat eta erabat baztertzen da lizitatzaileekin kontratuaren terminoak negoziatzea.

10. Lizitazioa argitaratzea.

Lizitazioaren iragarkia Abanto Zierbenako Udalaren kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratuen Plataforman soilik argitaratuko da.

Lizitazio honen iragarkia udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Proposamenak aurkezteko epearen konputua hau izango da:
- Epea pleguaren karatulan ezarritakoa izango da eta 10 egun baliodunekoa izango da gutxienez, lizitazioaren iragarkia udalaren kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna baldin bada, hurrengo lehen lanegunera atzeratuko da.

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Epe horiek luzatu egingo dira kasu hauetan:

- Eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 6 egun lehenago interesdunek eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 12 egun lehenago eskatutako informazioa erantzun ez bada. Salbuespena izango da eskatutako informazioa garrantzitsua bada, SPKLren 136.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Pleguetan aldaketa esanguratsuak egiten badira, SPKLren 136.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Interesdunek pleguan ezarritakoaren edo beste dokumentuen gaineko azalpenak eskatzen badituzte, erantzunak lotesleak izango dira eta lizitatzaile guztien interesekoak badira, kontratatzailearen profilean argitaratuko dira lizitazioaren prozeduran berdintasuna eta konkurrentzia bermatzeko.

11. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, argitaratzea, informazioa eta konfidentzialtasuna.

Kontratazio-organoak tratamendu parekidea eta ez diskriminatzailea emango die lizitatzaileei eta gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipiora egokituko dute jarduketa.

Informazio publikoa eskuratzearen arloko indarreko legerian ezarritakoa eta adjudikazioa argitaratzeari eta hautagaiei zein lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruzko SPKLren xedapenak eragotzi gabe, kontratazio-organoek ezingo dute lizitatzaileek emandako informazioa zabaldu, eskaintza aurkeztean konfidentzialtzat jo badute. Konfidentzialtasunaren betebeharra ezingo da eskaintza osora zabaldu. Kontratazio-organoek ezingo dute informazio hori dibulgatu erakunde lizitatzailearen baimenik gabe.

Kontratua gauzatzeko eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du kontratistak.

12. Proposamenak eta eskatutako dokumentazioa aurkeztea

12.1 Arau orokorrak.

- **<u>Prozedura sinplifikatuaren bidez egindako lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaileek Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean erregistratuta egon beharko dute.</u>** Helburu horietarako, lizitatzaile baten proposamena onargarritzat joko da baldin eta dagokion Erregistroan inskribatzeko eskaera aurkeztu duela egiaztatzen badu, dagozkion dokumentuen bidez. Eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa izan behar du eskaerak. Zirkunstantzia hori egiaztatzeko, egindako eskaeraren hartu-agiria aurkeztu behar da, dagokion Erregistroak igorria. Horrez gain, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar da, derrigorrezko dokumentazioa aurkeztu dela eta zuzentzeko eskakizunik ez dela jaso adierazten duena.

- Kontratuaren helburuari proposamenak aurkeztu ahal izango dizkiote jarduteko erabateko gaitasuna duten eta dagozkien estatutuen edo sortze-arauen arabera haien helburuak kontratuaren xedearekin harreman zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrek zein

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

atzerritarrek. Halaber, behar bezala egiaztatu beharko dute kontratua gauzatzeko adina elementu pertsonal eta material dituen erakunde bat dutela.

- Kontratazio-organoak bermatu beharko du baldintza teknikoak, kontratua prestatzeko dokumentuak edo kontratazio-organoaren aholkularitza egin duten enpresek, zein Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan jasota dauden ustezko kasuetan atxikita dauden enpresek, ez dutela konpetentzia faltsutzen. Tratu-berdintasuna bermatzeko bestelako modurik ez badago, baztertu egin daitezke audientzia bat egin ondoren. Hautagai edo lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie parte-hartzearen baitan trukatutako informazioa, tratu-berdintasuna bermatzeko prozedura prestatzeko.

- Zaintzea, ikuskatzea, kontrolatzea, edozein kontraturen exekuzioa zuzentzea eta segurtasuneko eta osasuneko koordinazioa bermatzea xede duten kontratuak ezingo zaizkie esleitu obren kontratuetako enpresa esleipendunei eta haiekin lotuta dauden enpresei, Merkataritzako kodearen 42. artikuluan definitutakoaren arabera.

- Lizitaziora aurkeztuko denak proposamenak aurkezten dituenean, plegu honetako klausulak, karatulako zehaztapenak eta kontratuaren gainerako dokumentuak onartuko ditu inolako baldintzarik eta salbuespenik gabe, eta erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta prestazioa kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela adierazteko.

- Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez bakarrik, ez aldi baterako enpresa-elkarte gisa; eta lizitaziora bakarrik aurkezten denak ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte baten barruan aurkeztu. Arau horiek hausten badira, ez dira onartuko izenpetutako eskaera eta eskaintza guztiak.

IFK: P-4800200-J

12.2. Komunikazioak eta jakinarazpenak lizitatzaileekin.

SPKLren 44.2 artikuluaren b) hizkian definitutako tramitearen ekintzak eta esleipen-hitzarmena jakinarazi egingo dira.

Komunikaziotzat hartuko dira argitzeko eskaerak, akatsak edo omisioak zuzentzeko eskakizunak, plegu honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko eskakizunak eta SPKLren 44.2 b) artikuluaren barruan ez dauden beste izapidetze-ekintza batzuk.

Jakinarazpenak eta komunikazioak lizitazio elektronikoaren sistemaren bidez egingo dira.

Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, EAEko Administrazioaren Egoitza Elektronikoaren bitartez. Egoitza elektronikora webgune honen bidez sar daiteke: https://euskadi.eus. Jakinarazpen eta komunikazioetara sartzeko, operadore ekonomikoek "Nire kudeaketak" esteka erabili beharko dute, "izapideak" fitxaren barruan.

Halaber, komunikazioak baliabide elektronikoen bidez egingo dira, jakinarazpenentzat adierazitako modu berean, posta elektronikoaren bidez egitea beharrezkotzat jo ezean. Kasu horretan, lizitatzailea ordezkatzeko ahala duen pertsonak argibideak dituzten dokumentuak, azalpenak edo

sinatuta entregatu beharreko beste dokumentu batzuk digitalki sinatu baditu soilik egin ahal izango dira azalpenak edo eskakizunak posta elektronikoaren bidez.

Ahozko komunikazioa erabili ahal izango da kontratazio-prozedura baten ezinbesteko elementuak ez diren komunikazioentzat, betiere, ahozko komunikazioa behar bezala dokumentatuta baldin badago. Pleguak, parte hartzeko eskaerak eta eskaintzak ezinbesteko elementuak dira.

Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoi teknologikoengatik ezinezkoa bada informazioa aipatutako bitarteko elektronikoen bidez trukatzea, informazioa posta-zerbitzuaren bidez edo beste edozein bide egokiren bidez bidali ahal izango da, edo posta-konbinazio baten bidez edo informazioa jasotzea bermatzen duen beste edozein bide egokiren bidez, betiere administrazio-eraginkortasunaren printzipioarekin bat etorriz eta espedienteen izapidetzea bermatze aldera.

12.3. Aurkezteko lekua eta modua.

Proposamenak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira.

Enpresa lizitatzaileek Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformaren bidez aurkeztuko dituzte eskaintza elektronikoak: https://www.contratacion.euskadi.eus.

Erabiltzeko baldintzak plataforma horretan une bakoitzean ezarrita daudenak izango dira.

Lizitatzaileentzako erabiltzaileak eskuragarri egongo dira aplikazioan bertan, deskargatzeko.

Posta elektronikoa: langutzakpe@euskadi.eus

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua: 945016298.

Aurkezteko modua:

a) Plegu honetako 12.4 puntuan eta Karatularen 20. puntuan adierazitako dokumentuak (gutun-azalak) erantsi behar dira aplikazioan ageri diren dagozkion artxiboetan.

b) Gordetako dokumentuak luzapen hauekin soilik irakurri eta izapidetu daitezke: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf., .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip eta .7z.

c) Birus batek sistemaren funtzionamenduan izan dezakeen eragina minimizatzeko, dokumentuak .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuetan bidaltzea gomendatzen da.

d) Eskaintza aurkezteko epearen barruan jaso dela aintzat hartuko da epe horren barruan hasten bada bidalketa eta arrakastaz amaitzen bada, lizitazio elektronikoaren sistemak baimentzen duen edozein bidalketa-modalitateren bitartez (zuzenekoa eta atzeratua).

- Lizitazio elektronikoaren prozedurak bermatuko du lizitatzaileek bidalitako eskaintzak igortzean eta erregistratzean, ezin izango dela haien edukia ezagutu, horretarako baimena duten pertsonek eta dagokion unean izan ezik.

- Lizitazio elektronikoa ezarrita egon arren, kontratazio-organoak aukera izango du eskaintza telematikoak aurkezteko aukera indarrik gabe uzteko, baldin eta Administrazioari egotz dakizkiokeen arazo teknologikoak direla-eta lizitazioa bide horretatik egiterik ez badago, administrazio-eraginkortasunaren printzipioarekin bat etorriz eta espedienteen izapidetzea bermatze aldera.

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Aurkezteko epea:

Proposamenak aurkezteko epea administrazio-klausulen pleguko karatulan ezarriko da.

12.4. Eskatzen den dokumentazioa.

Eskaintza artxibo bakar batean aurkeztuko da. Izen hau izango du artxiboak:
"DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA ETA PROPOSAMEN EKONOMIKOA, AUTOMATIKOKI EDO FORMULA BIDEZ BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK".

Dokumentu hauek izango ditu.

1.- **Erantzukizunpeko adierazpena:** Plegu honen I. eranskineko dokumentua behar bezala bete, elektronikoki sinatu eta dagokion identifikazioa jarriko zaio.

2.- **Enpresen elkarte bat eratuz gero:**

ABEE bat eratzeko konpromisoaren adierazpena (IV. eranskinean ageri den ereduaren arabera), sinatzaileen izenak eta baldintzak, bakoitzaren parte-hartzearen ehunekoa eta kontratua indarrean dagoen bitartean administrazioaren aurrean guztien ordezkaritza izango duen pertsona adieraziz. Halaber, dokumentu horrek jaso beharko du kontratua esleituz gero enpresen aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoa dutela.

3. **Eskaintza ekonomikoa** Lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatutako proposamen bakarra izango da, Plegu honen II. eranskineko ereduaren arabera idatzita.

4. **Formula bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak baloratzeko beharrezkoak diren eta pleguaren Karatulan adierazita dauden beste dokumentuak**.

5. **Lizitatzaileak Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dagoela egiaztatzen badu dagokion erregistroan izena emateko eskaera aurkeztuz, dokumentu hauek entregatu beharko ditu:**

- Dagokion erregistroak igorritako eskaera jaso izanaren agiria.
- Derrigorrezko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko eskaerarik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena.

Fitxategi guztientzako oharra: ESKUMEN NAHIKOA DUTEN PERTSONA GUZTIEK SINATU BEHARKO DITUZTE FITXATEGI GUZTIAK ELEKTRONIKOKI.

Ziurtagiri elektronikoaren titularrari dagokio behar bezala erabiltzeko neurri egokiak hartzea. Ziurtagiriaren erabilera axolagabea edo desegokia eginez gero, udala ez da erantzule egingo eta titularrarena soilik izango da erantzukizuna.

Gaitasunari eta kontratatzeko debeku ezari dagokionez, indarrean egon beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean eta kontratua gauzatzeko unean ere bere horretan jarraitu behar dute.

Eskaintza ekonomikoan BEZa partida independente bat izango da eta jasanarazi egin beharko da.

Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du kontratuaren gehieneko aurrekontua gainditu.

IFK: P-4800200-J

Eskainitako prezioaren barruan sartuko dira beti kontzeptu guztiak, besteak beste, gastuak, tasak, edozein zerga-esferetako erabakimenak eta kontratistaren etekin industriala. BEZa partida independente gisa jasanaraziko da.

Karatulan hala aurreikusten bada, gutun-azal honetan gehituko dira proposamen ekonomikoaren ereduari dagozkion eranskinak.

Ez dira onartuko honako proposamen hauek:

1.- Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten kontraesanak, omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.

2.- Lizitazioaren gehieneko tasa gainditzen dutenak.

3.- Proposamenaren zenbatekoan akatsa dutenak.

4.- Plegu honen II. eranskinean ageri den proposamen-eredua nabarmen aldatzen dutenak.

5.- Lizitatzailearen ustez, bideraezin egiten duten akatsa edo funsgabetasuna dutenak.

Letretan adierazitako eskaintza eta zenbakitan adierazitakoa bat ez badatoz, letretan adierazitako kopurua gailenduko da, salbu eta, dokumentazioa aztertzetik eratorritako arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen badu.

Eskaintza ekonomikoan egindako kontu-akatsak zuzendu egingo dira.

Eskaintzak ukatzea ez dakarten kontraesanak edo akatsak egonez gero, kontratazio-mahaiak irizpide arrazionalen arabera hartuko du jarrera.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina karatulan baimenduz gero, baimendutako soluzio guztiak jaso ahal izango ditu, eta, ondorioz, eskaintza ekonomikoen balizko aldaera guztiak.

Sortarik izanez gero, zenbat sortatarako aurkezten den, hainbeste artxibo aurkeztuko dira.

DOKUMENTAZIOAREN EGIAZKOTASUNA.

Administrazioak esleipenaren aurretik, ondoren eta kontratua indarrean dagoen bitartean aukera izango du fitxategien barruan dauden dokumentuen, zein, hala badagokio, karatulan esleipen-irizpide gisa finkatuta dauden dokumentuen edukiaren egiazkotasuna frogatzeko. Enpresak aurkeztutako datuak eta baldintzak gezurra badira, kontratua bertan behera gera daiteke, hala badagokio, kontratistari egotz dakiokeen ez betetzeagatik, eta behin-behineko bermea gal dezake edo, bermerik eratu ez bada edo eratzea beharrezkoa ez bada, haren balio bereko indemnizazioa ordaindu beharko du. Horrez gain, bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte-ordainak indemnizatu beharko dizkio administrazioari.

13. Enpresa lizitatzailearen oinordekotza prozeduran.

Prozedura bat tramitatzean eta hura esleitu aurretik enpresa lizitatzaile bateko pertsona juridikoa edo hautagaia alde batera geratzen bada enpresa ondarearen fusioarengatik, zatiketarengatik edo besterentzearengatik, postua hartuko du fusioaren ondorioz geratu den pertsonak, zatiketaren onuradunak edo ondarea edo dagokion jarduera-adarra eskuratu duenak, betiere esleipen-prozeduran parte hartzeko gaitasuna baldin badu, kontratatzeko debekurik ez badu eta bere

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

sailkapena edo kaudimena egiaztatzen badu, administrazioko klausula partikularren plegu honetan eskatutako baldintzetan.

14. Proposamenak irekitzea.

Proposamenak onartzeko epea amaitutakoan, dokumentazio guztia biltzen duen artxibo bakarra irekiko da.

Lizitazio elektronikoko plataformaren bidez bermatzen da proposamenak aurkezteko epea amaitu arte ez direla irekiko, eta, beraz, ez dela horiek irekitzeko ekitaldi publikorik egingo, eta, aukerakoa bada ere, Kontratazio Mahaia eratuko dela, eskaintzak baloratzeaz arduratuko dena.

Kontratazio Mahaiaren funtzionamenduaren erregimena 9/2017 Legean eta bere garapen-xedapenetan araututakoa da, 40/2015 Legean elkargo-organoei dagokienez ezarritakoaz gain.

Fitxategiak irekitzeko ekitaldia udaletxeko udalbatza-aretoan izango da, El Minero etorbideko 2. zenbakian, 2. solairuan, 48500 Abanto Zierbenan.

Kontratu horren lizitazioa bitarteko elektronikoen bidez egiten bada, SPKLren 157. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (eta, halaber, Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak 6/2018 txostenean adierazitako irizpidea jarraituz), Kontratazio Mahaiaren ekitaldiak ez dira publikoak izango, bitarteko elektronikoak erabiliz proposamenen osotasuna eta isilpekotasuna bermatzen baita.

IFK: P-4800200-J

15. Eskaintzen ebaluazioa.
Artxibo bakarra ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu:
- Eskaintzak pleguetan ezarritako baztertzeko arrazoiren batean ote dauden egiaztatzea.
- Onartutako eskaintzek balio baxuegiak dituzten egiaztatzea; kasu horretan, hurrengo klausulan adierazten den moduan jokatuko da.
Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio-organoari eskaintza(k) onartzea edo baztertzea proposatuko dio, eskaintza(k) bete ezin d(ir)ela uste badu.
- Eskaintzen puntuazioak kalkulatzea eta eskaintzarik onena zein den zehaztea, eskaintzetako bakoitzak esleipen-irizpide guztietan lortutako puntuak batuz. Kalkulua egiteko, ez dira kontuan hartuko baztertu diren eskaintzak.

Eskaintzen balorazioa automatikoki egin ahal izango da gailu informatikoen bidez.

Eskaintzak puntuazio-handienetik txikienera sailkatuko dira, eta, sailkapen horren arabera, dagokion esleipen-proposamena egingo zaio kontratazio-organoari.

Esleipendun izateko proposatutako lizitatzaileari dagokionez, Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean egiaztatuko da enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko nahikoa ahalmen duela, eta ez duela kontratatzeko debekurik.
Lizitatzaileak SPKLren 159. artikuluaren 4. apartatuaren a) letraren azken tartekian aipatzen den erregistroan inskribatzeko eskabidea aurkeztu izana egiaztatzeko ahalmena erabili badu, mahaiak

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

lizitatzaileari eskatuko dio zenbaki honetan aipatzen diren kontratatzeko gaitasunari buruzko alderdi guztiak agiri bidez justifikatzeko.

SPKLren 139.1 artikuluaren arabera, proposamenak aurkezteak esan nahi du kontratazio-mahaiari eta organoari baimena ematen zaiola aipatutako Lizitatzaileen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu-kide baten operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Kontratazio Mahaiaren ekitaldietako emaitza argitaratzea.

Egindakoa artxiboaren irekiera-aktan jasoko da. Akta hori kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

16. Ezohiko balioak edo balio neurrigabeak dituzten eskaintzak.

Ezohiko balioak edo balio neurrigabeak dituzten eskaintzak 9/2017 Legearen 149. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira. Hala ere, lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko izango duen epeak ezingo du 5 egun baliodunetik gorakoa izan, dagokion jakinarazpena bidaltzen zaion egunetik hasita.

Irizpide bakarra prezioa baldin bada, 1098/2001 Errege Dekretuko 95. artikuluan eta baliokideetan ezarritakoa xedatuko da. Hainbat irizpide ezartzen badira, plegu honen Karatulan xedatutakoa egingo da, parametro objektiboak aurreikusten badira balio ezohikoak edo neurrigabeak dituzten eskaintzak zein diren zehazteko.

Prozeduran kasuan kasuko aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Nolanahi ere, kontratazio-organoek baztertu egingo dituzte eskaintzak, baldin eta egiaztatzen badute nabarmenki baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo aplikatzekoak diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak –naziokoak nahiz nazioartekoak– urratzen dituztelako, horren barnean dela indarrean diren hitzarmen kolektibo sektorialak urratzea, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Nolanahi ere, justifikazioa ez da ontzat joko lizitatzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua azaltzeko, baldin eta justifikazio hori osatu gabea bada edo ikuspuntu tekniko, juridiko edo ekonomikotik desegokiak diren hipotesi edo jokabideetan oinarritzen bada.

17. Berdinketa hausteko irizpideak.

Proposamenak abantaila-egoera berdinean baldin badaude (puntuazio berdina bi hamarren arte), karatulan ezarritako irizpideak aplikatuko dira eta 9/2017 Legearen 147.1 artikuluan horri dagokionez xedatutakoa errespetatuko da. Irizpiderik ez badago ezarrita, 9/2017 Legearen 147.2 artikuluan aurreikusitako irizpide sozialak aplikatuko dira.

Berdinketa hausteko irizpideen dokumentazioa berdinketa gertatzen denean entregatu beharko dute lizitatzaileek, ez lehenago. Horretarako, kontratazio-mahaiak beharrezko dokumentazioa eskatuko die enpresa kaltetuei eta gutxienez bost egun naturaleko epea emango die dokumentu horiek entregatzeko.

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

18. Esleitzeko proposamena.

Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio-mahaiak sailkapena eta esleipen-proposamena bidaliko dizkio kontratazio-organoari.

19. Esleitu gabe uztea eta kontratua ez esleitzeko eta bertan behera uzteko erabakia.

Hutsik uztea.

Kontratazio-organoak ezingo du lizitazio bat hutsik utzi pleguan ezarrita dauden irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamen bat baldin badago.

Kontratazio-organoak hutsik utz dezake lizitazio bat, kontratazio-mahaiak hala eskatuta, pleguan ezarrita dauden irizpideen arabera onargarria ez den eskaintza edo proposamenik ez badago.

Kontratua ez esleitzeko eta bertan behera uzteko erabakia.

9/2017 Legearen 152. artikuluan aurreikusitako terminoetan, administrazioak kontratua ez esleitzea erabaki dezake kontratua formalizatu aurretik, espedientean behar bezala justifikatuta dauden interes publikoko arrazoiengatik; edo tramitatutako prozedura bertan behera utzi dezake, zuzendu ezin diren akatsak baldin baditu. Bi kasuetan, lizitazioan parte hartzeko gaituta dauden hautagaiak konpentsatu beharko ditu, lizitazioan parte hartzeak eragindako gastuengatik, Karatulan aurreikusita dagoen moduan, edo, hala badagokio, administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabilitako balorazio irizpideen arabera.

IFK: P-4800200-J

20. Esleipena.

Esleipen-proposamena egin eta gehienez ere 5 egun balioduneko epean, kontratua esleituko dio kontratazio-organoak esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileari, eta esleitu ondoren formalizatu egingo da.

Esleipenaren ebazpenak arrazoitua izan beharko du eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Gainera, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean (SPKLren 151.1. artikulua).

Lizitatzaileei jakinaraztea.

Nolanahi ere, interesdunek esleipenaren erabakiaren aurka behar bezala arrazoitutako errekurtsoa jarri ahal izateko informazioa izan beharko du egindako jakinarazpenak, 9/2017 Legearen 151. artikuluko edukiaren arabera, eta formalizatzeko epea adierazi beharko du.

Esleipenduna aldi baterako enpresen elkartea bada, kontratua sinatu aurretik ABEE hori eratu izanaren eskritura publikoa entregatu behar duela adieraziko zaio.

21. Kontratua gauzatzea.

Kontratua formalizatzean burutuko da.
Kontratua kontratazio-organoaren egoitza dagoen lekuan egingo da.

22. Kontratua formalizatzea

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Kontratua dokumentu administratibo batean formalizatu beharko da eta lizitazioaren baldintzetara egokitu beharko da zehatz-mehatz. Dokumentu horrek edozein erregistro publikotara sartzeko titulua izan beharko du. Hala ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta bere kontu geratuko dira gastuak.

Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere esleipen-baldintzak aldatzea eragingo duen klausularik sartu.

23. Formalizatzeko epea.

Lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena egiten zaien egunetik zenbatzen hasita hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da kontratua.

Ezingo da kontratua exekutatzen hasi formalizatu aurretik, Legearen 153.6 artikuluan jasota dauden salbuespen-kasuetan izan ezik.

24. Ez formalizatzearen efektuak.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen kausak direla eta kontratua adierazitako epean formalizatuko ez balitz, lizitazioaren oinarri-aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZa kenduta), zigor moduan, SPKLren 71.2 a) artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe. Lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka gauzatuko da ordainketa hori. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egozteko modukoak badira, berandutzeak eragin diezazkiokeen kalte-galeren kalte-ordaina emango zaio kontratistari.

25. Aseguruak.

Esleipendunak aseguru-poliza hauek kontratatuko ditu eta mantenduko ditu kontratuaren iraupenaren eta bermearen epe osoan zehar:

- Erantzukizun zibileko asegurua, orokorra edo ustiapenekoa, patronalarena eta amaitutako lanena. Kontratista eta, hala badagokio azpi-kontratista, aseguratu beharko dira.
- Ustiapenerako erantzukizun zibileko frankizia ezingo da 10.000 €-tik gorakoa izan eta ezbehar bakoitzeko indemnizazioaren gutxieneko muga 150.000 eurokoa izango da.

Polizaren ziurtagiria eta harpidetza deskribatutako terminoetan aurkeztea exekutatzeko baldintza berezia izango da, eta ez betetzeagatik kontratuaren prezioaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango da.

Nolanahi ere, esleipendunak bere gain hartuko ditu frankiziaren zenbatekoan eta aseguru-polizetan ezarritako mugak gainditzen dituzten kalte eta galerak, bai eta poliza horietan sartzen ez diren ondasun eta arriskuak ere

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Kontratua amaitzeko garaian atzerapenak baldin badaude aurreikusitako epeari dagokionez, beharrezko luzapenak kontratatuko dira eta esleipendunak ordainduko du dagokion prima gehigarria.

26. Konfidentzialtasuna

Eskaintza aurkezteko garaian enpresariek informazioa konfidentziala dela adierazi badute, informazio hori ez da zabalduko, 9/2017 Legearen 133. artikuluan aurreikusitako termino eta baldintzetan (VII. eranskinaren eredua), eta informazio publikorako sarbidearen arloan, esleipenaren argitalpenaren arloan eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman behar zaien informazioaren arloan indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera.

Kontratistak kontratuaren exekuzioan zehar jasotzen duen eta pleguetan edo kontratuan izaera konfidentziala ezarri zaion informazioa edo bere izaeragatik hala tratatu behar dena errespetatu beharko du. Betebehar hori bost urtez mantenduko da, informazio horren berri duenetik hasita, pleguetan edo kontratuan epe luzeagoa ezarri ezean. Edonola ere, denboran mugatuta eta zehaztuta egon beharko du.

IFK: P-4800200-J

27. Zuinketa egiaztatzea.

Kontratua sinatu eta gehienez ere hilabete bateko epean, justifikatutako salbuespenen kasuan izan ezik, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko da kontratistarekin batera, SPKLren 237. artikuluan eta Administrazio Publikoko Kontratuen Araudi Orokorraren 139, 140 eta 141 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Zuinketaren egiaztapena sinatzeko eguna eta ordua udalak zehaztuko du. Aipatutako epea atzeratzen bada, kontratua bertan behera gera daiteke.

Obren zuzendari fakultatiboaren iritziz zuinketaren egiaztapenak erakusten badu lurzoruen jabetza eta eskuragarritasuna erreala dela, egokiak direla eta proiektua bideragarria dela, eta kontratistak aurkakorik adierazten ez badu, obraren zuzendariak baimena emango du obrekin hasteko, eta berariaz adieraziko du hori aktan. Akta sinatze hutsarekin aintzat hartuko da kontratista jakinaren gainean dagoela eta obrak gauzatzeko epea akta sinatu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen. Obra ezingo da hasi zuinketa egiaztatzeko dagokion akta bete arte edo aktan arrazoitutako erreserbak baldin badaude.

Kontratistak proiektuaren bideragarritasunaren erreserbarik ez formulatu arren, obraren exekuzioari eragin diezaioketen beste ohar batzuk egiten baditu, zuzendaritzak ohar horiek kontuan hartuta erabakiko du obrekin hasi ala bertan behera utzi eta dagokion aktan justifikatuko du erabakia. Aktaren kopia bat espedientean sartuko da, beste bat kontratistari emango zaio eta hirugarrena zuzendariak gordeko du.

Aipatutako epea atzeratzen bada, kontratua bertan behera gera daiteke.

Kontratazioaren barruan obra-proiektua idatzi behar bada, obrak gauzatu ahal izateko, kontratistak aurkeztutako proiektua ikuskatu, onartu eta zuinkatu beharko du Administrazioak.

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

28. Lan-egitasmoa eta segurtasuneko eta osasuneko plana.

LAN EGITASMOA: Kontratua gauzatzeko epea urtebetetik beherakoa bada eta ez bada beharrezkoa kontratistak lan-programa aurkeztea: onartutako proiektuaren lan-programan aurreikusitakoa egingo da.

SEGURTASUNEKO ETA OSASUNEKO PLANA: Araudi espezifikoak salbuesten duen kasuetan izan ezik, Segurtasuneko eta Osasuneko azterketa egin beharko da, edo, hala badagokio, eraikuntza-obretako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1997ko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren araberako oinarrizko azterketa. Kontratistak laneko segurtasuneko eta osasuneko plan bat egingo du obra bakoitzerako eta bertan azterketan edo oinarrizko azterketan ageri diren aurreikuspenak analizatu, aztertu, garatu eta osatuko dira, obra gauzatzeko sistema propioaren arabera.

Segurtasuneko eta osasuneko plana kontratazio-organoak onartu beharko du obra bakoitza hasi aurretik, segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailearen, edo hala badagokio zuzendariaren, aurretiazko txostenarekin.

IFK: P-4800200-J

29. Obren seinaleztapena.

Kontratistak derrigorrez eta bere kontura instalatu beharko ditu obraren sarbidea adierazteko jarri beharreko seinaleak, lanek okupatzen duten eremuko zirkulazio-seinaleak eta lanen ondorioz arriskutsuak izan daitezkeen puntuetako seinaleak, bai obraren eremuan, bai eremu mugakideetan eta handik gertu Kontratistak zuzendaritzak idatziz igorritako aginduak bete beharko ditu, seinale osagarrien instalazioari edo dagoeneko instalatuta daudenen aldaketei dagokienez.

Seinaleen gastuak kontratistaren kontu izango dira. Kontratistak ez badu udalak emandako epean instalatzen, administrazioak berak instalatuko du eta gastuak kontratistaren kontu geratuko dira.

Egikaritze-baldintza linguistikoak.

Kontratista esleipendunak eta balizko kontratistek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte obrako errotulazioetan eta seinaleetan, bai eremu barruan, bai kaleko panel informatiboetan.

Herritarrentzako dokumentu edo inprimaki guztiak ere elebitan izan beharko dira, halakorik balego.

30. Obra-zuzendaritza eta kontratistaren ordezkaria.

Administrazioak kontratatutako obra behar bezala egiteko ikuskapenak, egiaztapenak eta zaintzak egingo ditu, horretarako izendatutako zuzendari fakultatiboaren bitartez, eta bere obrako ordezkariaren bitartez bidaliko ditu aginduak eta jarraibideak.

Kontratistaren obrako ordezkaria hark esleitutako eta Administrazioak onartutako pertsona izango da eta kontratazio-xedearen antzeko obretan esperientzia izan beharko du.

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

31. Kontratuaren arduraduna.

Pleguaren karatulan hala esleitzen dena izango da, eta Zuzendari Fakultatiboari dagokio figura hori. Legearen 237tik 246ra bitarteko artikuluetan xedatutakoaren arabera gauzatuko ditu bere ahalmenak.

Kontratazio-organoak erakunde kontratatzailearekin lotutako edo kanpoko pertsona fisiko edo juridiko bat esleituko du kontratuaren arduradun gisa, eta lanen exekuzioa ikuskatuko du. Lanak kontratuan ezarritako horretara egokitzen direla egiaztatuko du eta kontratazio-organoaren aginduak eta jarraibideak emango dizkio kontratistari. Zehazki, kontratuaren arduradunak atribuzio hauek izango ditu:

- Kontratazio-organoari kontratistari ezarri beharreko zigorrak proposatzea, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua betetzen ez bada.

- Obren harrera egitea eta, hala badagokio, jasota izatea.

32. Kontratistaren betebeharrak.

1.- Obrak administrazioko klausula partikularren plegu honetan xedatutakoaren, kontratuaren oinarria den proiektuaren eta obren zuzendari fakultatiboak proiektuaren interpretazio teknikoa egitean kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera gauzatuko dira. Jarraibide horiek ahozkoak badira, idatziz berretsi beharko dira lehenbailehen, aldeentzako lotesleak izan daitezen. Halaber, kontratistak kontratazio-organoak kontratuaren arduradun gisa ematen dizkion jarraibideak jarraitu beharko ditu, bere atribuzioen arloan.

2.- Obrak gauzatu bitartean eta bermearen epea bete arte, kontratista izango da eraikuntzan egon daitezkeen akats guztien erantzulea.

Administrazioak esleitutako zuzendari fakultatiboaren iritziz obraren zati bat gaizki gauzatu bada, kontratistak berriro egin beharko du eta ez du eskubiderik izango inolako indemnizaziorik jasotzeko, nahiz eta harreraren ondoren hauteman akats horiek.

Zuzendaritzak uste badu obra-unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak direla, Administrazioari proposa diezaioke horiek onartzea, prezioetan beherapena eginez. Kasu horretan, kontratistak Administrazioak finkatutako prezio murriztuak onartu beharko ditu, unitate akastunak bere kabuz eta kontratuaren baldintzen arabera eraitsi eta berreraiki nahi baditu izan ezik.

3.- Kontratua kontratistaren arrisku eta ardurapean egingo da, SPKLren 239. artikuluan xedatutakoa betez.

4.- Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko operazioen ondorioz berak, bere langileek edo bere mendeko baliabideek hirugarrengoei eragindako kalte eta eragozpen guztiak indemnizatzea. Kalte eta eragozpen horiek guztiak Administrazioaren agindu berehalakoaren eta zuzenaren ondorio badira, administrazioa izango da erantzulea legeetan adierazitako mugen barruan. (SPKLren 196. artikulua).

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Kontratua enpresa bat baino gehiagoren artean gauzatzen bada, guztiek izango dituzte karatula honek aipatzen dituen erantzukizunak modu solidarioan.

5.-Kontratistak bere erantzukizun esklusiboaren pean bete beharko ditu lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dauden erantzukizunak, eta kontratuaren helburua gauzatzeko beharrezko langileak izango ditu bere kargu. Haien enpresaria izango da ondorio guztietarako.

6.- Kontratistak kontratuaren helburuarekin lotuta dauden eta kontratua gauzatzean iritsi zaizkion datuak edo aurrekariak isilpean gorde beharko ditu eta ezingo ditu publiko egin edo nabarmendu.

7.- Bermearen epea iraungi ondoren obrak porrot egiten badu eraikuntzako akats ezkutuengatik eta kontratistak kontratua ez betetzeagatik, berak ordaindu beharko ditu kalteak eta eragozpenak, harreratik hamabost urteko epean. Epe hori igarota inolako kalte edo eragozpenik ez badago, kontratistaren erantzukizun oro bertan behera geratuko da.

8.- Kontratistak ordaindu beharko ditu kontratua eskritura publiko egiteko gastuak eta zergak eta beharrezko lizentziak eta baimenak, batez ere, hirigintzako zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasa, obren lizentziaren kontzeptuagatik. Horrez gain, instalazioak behar bezala entregatzeko beharrezko tasak ere ordainduko ditu. Halaber, enpresak kontratua betetzeko egin beharreko gastu guztiak ordaindu beharko ditu, hala nola orokorrak, finantzarioak, aseguruenak, garraioenak eta lekualdatzeenak, materialenak, instalazioenak, langileen hobarienak, egiaztapen eta entseguetakoak, tasak eta tributu mota guztiak, batez ere, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga, eskatzen bada, BEZa eta indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzeagatik ordaindu beharreko beste edozein.

Esleipendunaren proposamenaren eta kontratuaren prezioaren barruan sartuko dira halaber kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak. Kontratazioaren helburuaren barruan sartzen bada proiektua idaztea, obra-proiektuaren bisaren eskubideak.

Kontratistak ordaindu beharko ditu obra zuzendaritzak adostutako entseguen eta kalitate-kontrolen gastuak, obraren aurrekontuaren % 1eko zenbateko baliokidearengatik gehienez ere. Nolanahi ere, obraren kalitate-akatsen eta gauzatze-akatsen ondorioz egin beharreko kontrolen gastu guztiak kontratistak ordainduko ditu oso-osorik eta inolako mugarik gabe.

Kontratazioaren barruan obra-proiektua idatzi behar bada, proiektua idatziko duen kontratistak kontratazioaren xede-proiektua entregatu beharko du kopia batekin batera euskarri informatikoan.

Kontratistaren erantzukizunpekoak izango dira obrak gauzatu edo ustiatu bitartean Administrazioari eta hirugarrengoei eragindako kalteak eta eragozpenak, proiektuaren akats eta gabezia teknikoengatik edo akats materialengatik, omisioengatik eta arau-hauste legalengatik edo arauen arau-hausteengatik gertatzen badira. Hori guztia, SPKLren 314 eta 315 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Halaber, proiektuan aurreikusitako obra gauzatzeko aurrekontua % 20 baino gehiago desbideratzen bada, bai kostu erreala baino handiagoa, bai baxuagoa izateagatik, kontratistari

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

egotz dakizkiokeen akatsengatik edo omisioengatik, proiektua egiteko kontratuaren prezioa murriztu egingo da indemnizazioaren kontzeptuagatik, eta kontratistak indemnizazioa ordaindu beharko dio Administrazioari SPKLren 315. artikuluan ezarritako baremoaren arabera.

33. Arriskua eta ardura.

Kontratua kontratistaren arrisku eta ardurapean egingo da, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 239. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe.

Proiektuaren interpretazioa.

Zuzendaritza fakultatiboari dagokio proiektuaren interpretazio teknikoa egitea eta proiektua garatzeko aginduak ematea. Kontratistak ezingo du inolaz ere proiektuaren definizio falta argudiatu. Haren ustez definizio faltaren bat baldin badago, zuzendaritza fakultatiboari idatziz eskatu beharko dio definizioa proiektua egin aurretik eta kontratistak eskaera hori egin eta hilabete bateko epean erantzun beharko du.

34. Epeak betetzea.

Kontratistak betebeharra du kontratua gauzatzeko epea betetzeko, plegu honetan eta karatulan aurreikusitako terminoetan.

Kontratista berandutze-egoeran jarri dela jakiteko, Administrazioak ez dauka aurrez agindeirik egin beharrik.

35. Zigorrak atzerapenagatik.

Obraren amaiera iristean kontratistak atzerapenen bat izan badu berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Administrazioak kontratua bertan behera uztea erabaki dezake, eratutako bermea galduz, ala eguneroko zigorrak ezar ditzake, 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Atzerapenen ondorioz ezarritako zigorrak kontratuaren prezioaren ehuneko 5eko multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak eskumena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratuarekin jarraitzea erabakitzeko, baina zigor berriekin.

Ahalmen hori bera izango du Administrazioak kontratistak epe partzialak betetzen ez baditu edo horiek betetzeko garaian izandako atzerapena dela eta epe osoa betetzea ezinezkoa dela ikusten badu.

Zigorra ezartzeak ez du esan nahi Administrazioak indemnizaziorik eska ezin duenik kontratistaren atzerapena dela eta eragindako kalte eta eragozpenengatik.

Epeak betetzeko garaian atzerapenen bat baldin badago kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratistak hala eskatuta edo ofizioz luzapena eman diezaioke Administrazioak kontratistari, eskatutako eperako, kontratistak epe txikiagoa eskatzen duen kasuetan salbu, SPKLren 195. artikuluan xedatutakoaren arabera.

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

36. Zigorrak gaizki betetzeagatik.

Kontratistak kontratuaren helburua gaizki betetzen badu, edo kontratua betetzeko beharrezko baliabide pertsonalak edo materialak erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa betetzen ez badu, kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzen ez baditu, kontratazio-organoak ez betetze horren larritasunaren araberako zigor ekonomikoa ezar dezake eta zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren % 10koa izan daiteke gehienez ere (SPKLren 192. art.). Hala ere, karatulan hala ezarrita baldin badago, kontratua bertan behera utz daiteke.

Hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratistak kontratuan definitutako prestazioak ez baditu partzialki betetzen, kontratazio-organoak bertan behera utz dezake kontratua edo kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zigorrak ezar ditzake.

Epe osoa edo partzialak betetzeko garaian atzerapenak baldin badaude, bi kasu bereizi behar dira:

37. Ordainketak kontratistari.
Egindako eta tramitatutako balorazio-zerrendaren gainean aurreko hilabetean egindako obren ziurtagiri bat igorriko du hilero obra-zuzendariak, hurrengo hilabeteko lehen hamar egunetan zehar, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 147tik 149ra bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera. Hileko ziurtagiri horiek berdin-berdin igorriko dira hilabete horretan obra-unitaterik ez egin arren, eta zenbatekoa "0 €" jarriko da.

Obra-ziurtagirien ordainketa kontratistak igorritako faktura elektronikoaren bidez egingo da, hurrengo klausulan ezarritakoaren arabera. Ordainketak kontura egingo dira, eta amaierako neurketan gertatzen diren zuzenketen eta aldaketen mende egongo dira. Hala, ordainketak inola ere ez du esan nahi lanak onartzen direnik eta harrera egiten zaienik.

Lanak edo zerbitzuak obra-ziurtagiriak onartu edo kontratu osoa edo zati bat egin izana egiaztatzen duten dokumentuak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunetan ordainduko dira. Ordaintzerakoan berandutuz gero, kontratistak berandutza interesak eta kobrantza-gastuen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du.

Halaber, kontratistak eskubidea izango du kontratua exekutatzeko prestaketa-operazioei dagokien zenbatekoaren ordainketak jasotzeko. Nolanahi ere, bermea eratzeko eskatuko zaio, abal moduan edo legez onartutako beste modu batean.

Kontratistak kontratuan aurreikusitako epeetan baino azkarrago egin ditzake lanak, baina ez du dagokion urterokoan esleitutako prezioa baino kopuru altuagorik kobratzeko eskubiderik izango. Zenbateko hori gainditzen duten ziurtagiriak hurrengo urterokoa hastean ordainduko dira. (AO 152 art.).

Kontratistak aldez aurretik idatziz eskatuz gero, ordainketak egin daitezke materialak metatzeagatik eta obrari atxikitako instalazioen eta ekipoen gastuengatik, Administrazio Publikoko Kontratuen Araudi Orokorraren 155, 156 eta 157 artikuluetan aurreikusitako moduan eta bermeekin. Kontratistak hirugarrengo bati laga diezaioke kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea, legez ezarritako edozein bitartekoren bidez, baina lagatze hori eraginkorra izateko eta

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Administrazioak ordainketak lagapen-hartzaileari egiteko, beharrezkoa da lagatze-hitzarmen hori frogagiri batekin jakinaraztea. (SPKLren 200. art.).

38. Fakturazio elektronikoa.

Kontratistak udalari fakturak formatu elektronikoan igortzeko betebeharra izango du.

Sinadura sortzeko gailu seguru baten bidez sortutako eta onartutako ziurtagiri batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratuarekin sinatutako faktura elektronikoak soilik onartuko dira.

39. Prezioak berrikustea.

Kontratuetako prezioak SPKLren III. Tituluko II. kapituluan ezarritako terminoetan eta aldizka soilik berrikusi ahal izango dira.

Prezioak berrikusi behar badira, plegu honen karatulan ezarritakoaren arabera egingo da.

40. Lagatzea eta azpikontratatzea.

1. Karatulan aurkakorik zehazten ez bada, kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarrengo bati laga dakizkioke esleipendunari, betiere, lagatzailearen gaitasun teknikoak edo pertsonalak ez badira erabakigarriak izan kontratua esleitzeko garaian, SPKLren 214.2 artikuluan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira eta lagatzean ez bada merkatuaren konpetentzia mugatzen.

Ez da baimenduko kontratua hirugarrenei lagatzea horrek nabarmen aldatzen baditu kontratistaren ezaugarriak eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua badira.

2. Hauek dira kontratua lagatzeko baldintzak:
a) Kontratazio-organoak aurretik eta berariaz baimentzea lagatze hori.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez exekutatuta izatea. Baldintza hau ez da aplikagarri izango kontratista konkurtsoan dagoenean, nahiz eta likidazio-fasea ireki edo konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi zaion birfinantzaketa-akordio bat lortzeko negoziazioak hasi dituela, edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko negoziazioak hasi dituela, konkurtsoaren legedian aurreikusitako moduan.

c) Lagatzaileak administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izatea eta kontratua exekutatzeko fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea. Behar bezala sailkatuta egon beharko da ea baldintza hori eskatu zaion lagatzaileari eta ezingo du kontratatzeko debekurik izan.

d) Esleipendunaren eta lagatzailearen arteko lagatzea eskritura publiko bidez egitea.

3. Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak. Hau izango da kontratua lagatzeko prozedura:

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

a) Kontratistak idatzi bat igorriko dio Udalari, lagatzeko baimena eskatuz. Eskaera horri lagatzaileak SPKLren 214.2 artikuluaren c) hizkian jasotako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsi beharko dio.

b) Kontratuaren arduradunak igorritako txostena, kontratuaren % 20 gutxienez exekutatzeko baldintza bete behar den ala ez adieraziz, eta, bete behar izanez gero, baldintza hori betetzen ote den adieraziz. Halaber, SPKLren 214. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoan jasotako mugak errespetatzen direla adierazi beharko du.

c) Txosten juridikoa.

d) Fiskalizazio ekonomikoaren txostena.

e) Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratistari lagatzea eta jakinaraztea baimentzeko.

f) Kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean, lagatzea baimenduz.

g) Lagatzea formalizatzea eskritura publiko bidez.

h) Lagatzaileak bermea erregistratzea Udal Altxortegian. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuli edo ezeztatuko lagapen-hartzailearena formalki eratu arte.

IFK: P-4800200-J

Azpikontratazioa
Kontratistak hirugarrengoekin adostu ahal izango du prestazioa partzialki egitea, bere izaera eta baldintzengatik ondorioztatu ezean esleipendunak exekutatu behar duela zuzenean.

Azpikontratuak egiteko garaian Legearen 215. artikuluan ezarritako arauak bete beharko dira. Edozein kasutan, esleipendunak aldez aurretik eta idatziz jakinarazi beharko du azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta azpikontratatu nahi duen prestazioaren zatia eta kontratistaren identitatea adierazi beharko ditu, zein kontratistak duen gaitasuna justifikatu.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean soilik izango dute erantzukizuna eta, hortaz, hark izango du administrazioaren aurrean kontratua exekutatzeko erantzukizuna.

Kontratistak 215. artikuluan ezarritako azpikontratatzeko baldintzak betetzen ez baditu eta azpikontratistaren gaitasuna edo premiazko egoeraren baldintza erabakigarriak edo azpikontratatzeko premia egiaztatzen ez badira, azpikontratatutako zenbatekoaren ehuneko 50era bitarteko zigor bat ezarriko da, edo kontratua suntsiaraziko da, betiere 211.1.f) artikuluko baldintzak betetzen badira.

Kontratistak azpikontratazioko langileen ordezkari guztiak informatu beharko ditu, laneko legediaren arabera. Kontratistak ezingo die inolaz ere esleitu kontratuaren exekuzio partziala kontratatzeko ezgaituak dauden pertsonei, ordenamendu juridikoaren arabera, edo Legearen 71. artikuluak jasotzen duen kasuren batean daudenei.

Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzea:

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Kontratistak adostutako prezioa ordaindu behar die azpikontratistei edo hornitzaileei ezarritako epeetan eta ezingo dira 3/2004 Legean aurreikusitakoak baino okerragoak izan, Legearen 216. artikuluan aurreikusitako termino eta baldintzen barruan.

Udalak ordainketa horiek behar bezala egin direla egiaztatu dezake. Horretarako, kontratuan parte hartu duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda igorriko dute kontratistek, ordaintzeko epearekin lotuta dauden baldintzekin batera. Halaber, prestazioa amaitu ondoren, ordainketen ziurtagiria entregatu beharko dute udalak eskatuz gero, Legearen 216. artikuluan eta 3/2004 Legean ezarritako ordaintzeko epeetan.

Betebehar horiek ezinbesteko betebeharrak dira eta horiek betetzen ez badira, pleguetan jasotako zigorrak ezarri ahal izango dira. Behin betiko bermearen bidez erantzungo zaio horri.

Karatulan dago jasota ea ordainketa zuzena aurreikusi eta onartzen den.

41. Exekutatzeko baldintza bereziak:

Karatularen eta pleguaren artean desadostasunak baldin badaude, karatulan ezarritakoa nagusituko da.

1. Berme sozialaren baldintzak.

Lan-baldintzak betetzeko baldintzak

Enpresa kontratistak betebeharra du lan-arloan, gizarte-segurantzan eta laneko segurtasunean eta osasunean indarrean dauden xedapenak betetzeko eta, zehazki, garatu beharreko prestazioak laneko hitzarmenaren edo hitzarmen kolektiboaren mende baldin badaude, betebeharra du laneko ordenantzaren xedapen guztiak eta dagokion hitzarmen kolektiboa betetzeko.

Enpresa esleipendunak egiaztatu beharko du kontratua exekutatzean lanpostuak babesteko arloan, lan-baldintzetan eta laneko arriskuen prebentzioan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak bete direla. Horretarako, dagozkion erantzukizunpeko adierazpenak edo, hala badagokio, organismo eskudunen ziurtagiriak erabiliko ditu.

Betebehar hori ez betetzea kontratua ez betetzea izango da eta kontratuaren prezioaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango da, BEZa kenduta.

Gutxieneko lan-baldintzekin lotutako baldintzak

1- Enpresa kontratistak betebeharra du gutxienez sektoreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotako soldata ordaintzeko, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera. Ordaindu beharreko soldata ez da inolaz ere hori baino txikiagoa izango. Betebehar hori betetzen ez bada kontratua suntsiarazi egingo da, egiaztatzen bada hala ez direla laneko betebeharrak betetzen. Hori egiaztatzen bada, laneko zigor bat ezarriko da ITSSren ikuskapen-jarduera edo ebazpen judiziala irmoa denean.

2- Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du kontratua exekutatu bitartean Abanto Zierbenako Udalak eskatzen dion informazio guztia emateko, kontratuaren xede-jarduera egiten duten langileei aplikatzen zaizkien lan-baldintzen gainean. Betebehar hori ez betetzea kontratua ez betetzea izango da eta kontratuaren prezioaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango da, BEZa kenduta.

IFK: P-4800200-J

Lan-harreman indibidual eta kolektiboei buruzko araudia betetzeko baldintzak.

Arlo horretan eskumenak dituen autoritateak enpresa kontratistari kondena ezartzea, bide administratibotik ezarritako zigor sendo baten bitartez, 2000ko abuztuaren 4ko 51/2000 Errege Dekretuak onartutako Arau sozialaren arau-hausteei eta zigorrei buruzko legearen 6 edo 7 artikuluetan tipifikatutako lan-arloko ara-hausteengatik, kontratua exekutatzeko garaian. Hori kontratua ez betetzat hartzen da eta kontratuaren prezioaren % 5era arteko (BEZik gabe) zigorra jarriko zaio zigorra arau-hauste arinagatik baldin bada edo % 10era bitartekoa arau-hauste larriagatik bada (7. artikulua).

Arau sozialaren arau-hausteei eta zigorrei buruzko legearen 8. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiteagatik kondena bat ezarriz gero, eta zigor irmoa ezartzen bada bide administratibotik, esan nahi du kontratuaren ezinbesteko baldintza bat urratu dela eta kontratistak kontratua suntsiarazteko arrazoi bat egin duela.

Halaber, kontratistak kontratuaren arduradunari informatu beharko dio kontratua exekutatzean izandako jazoeren ondorioz laneko arriskuen prebentzioaren arloan edozein zigor jartzen badiote. Halaber, bere aurka planteatu diren balizko errekurtsoen eta horien ebazpenen berri ere eman beharko dio. Informatzeko betebehar hori ez betetzea kontratua ez betetzea izango da eta kontratuaren prezioaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango da, BEZa kenduta.

Laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak betetzeko baldintzak

Arlo horretan eskumenak dituen autoritateak enpresa kontratistari kondena ezartzea, bide administratibotik ezarritako zigor sendo baten bitartez, 2000ko abuztuaren 4ko 51/2000 Errege Dekretuak onartutako Arau sozialaren arau-hausteei eta zigorrei buruzko legearen 6 edo 7 artikuluetan tipifikatutako lan-arriskuen prebentzioan egindako arau-hausteengatik, kontratua exekutatzeko garaian. Hori kontratua ez betetzat hartzen da eta kontratuaren prezioaren % 5era arteko (BEZik gabe) zigorra jarriko zaio zigorra arau-hauste arinagatik baldin bada edo % 10era bitartekoa arau-hauste larriagatik bada (7. artikulua).

Arau sozialaren arau-hausteei eta zigorrei buruzko legearen 8. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiteagatik kondena bat ezarriz gero, eta zigor irmoa ezartzen bada bide administratibotik, esan nahi du kontratuaren ezinbesteko baldintza bat urratu dela eta kontratistak kontratua suntsiarazteko arrazoi bat egin duela.

Halaber, kontratistak kontratuaren arduradunari informatu beharko dio kontratua exekutatzean izandako jazoeren ondorioz laneko arriskuen prebentzioaren arloan edozein zigor jartzen badiote. Halaber, bere aurka planteatu diren balizko errekurtsoen eta horien ebazpenen berri ere eman beharko dio.

Informatzeko betebehar hori ez betetzea kontratua ez betetzea izango da eta kontratuaren prezioaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango da, BEZa kenduta.

Azpikontratazioarekin lotutako baldintzak

Azpikontratazioa eginez gero, kontratista nagusiak kontratuaren exekuzioaren erantzukizun osoa bere gain hartuko du Administrazioaren aurrean, administrazio klausula partikularren plegu honen eta kontratuaren terminoen arabera. Tartean, arlo sozialean edo lanekoan dauden betebeharrak beteko ditu.

Betebehar hori ez betetzea kontratua ez betetzea izango da eta kontratuaren aurrekontuaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango da.

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

2. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak.

Kontratistak bermatu beharko du dokumentazio, argitalpen, irudi edo material guztiek hizkuntza ez sexista erabiltzea, eta emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro saihestu beharko du. Horrez gain, irudi jakin bat sustatu beharko du, berdintasun balioak dituena, emakume eta gizonen presentzia orekatu bat, aniztasuna, ardura partekatua eta rol eta genero identitate plurala.

Kontratistak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta betebeharrak bete beharko ditu.

50 langile baino gehiago dituen enpresa kontratistak Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasun Plana duela justifikatu beharko du, Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako edukiarekin.

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du tratuari, enplegua lortzeari, lanbide-sailkapenari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, iraungitzeari, ordainsariei, lanaren kalitateari eta egonkortasunari, eta lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari dagokienez.

Betebehar horietakoren bat ez betetzea kontratua ez betetzea izango da eta kontratuaren aurrekontuaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango da.

3. Azpikontratistei ordainketak betetzeko baldintzak.

Kontratistak SPKLren 216. artikuluan ezarritako azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko epeak bete beharko ditu.

Udalak beretzat gordetzen du kontratistak azpikontratista edo hornitzaile guztiei egin beharreko ordainketak ondo egin dituela egiaztatzeko eskubidea. Kontratuaren arduradunak eskatuz gero, kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratista eta hornitzaile guztien zerrenda xehea aurkeztu beharko du, horien parte-hartzea perfekzionatzen denean, baita ordainketa epearekin lotura zuzena duten azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere. Halaber, azpikontratistei edo hornitzaileei ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, prestazioa amaitzen dutenean.

Nolanahi ere, egiaztapen hori egingo da bost milioi eurotik gorako balio estimatua duten kontratuetan eta azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 30ekoa edo handiagoa denetan, kontratista nagusiarekin obraren zati edo unitate jakin batzuk egiteko konpromisoa hartu duten azpikontratistei egin beharreko ordainketei dagokienez.

Betebehar hori ez betetzea kontratua ez betetzea izango da eta kontratuaren prezioaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango da.

4. Kontratistak gardentasun instituzionala bermatzeko duen betebeharra

Kontratistak esleipen-prozeduratik eta kontratuaren exekuziotik eratorritako datu guztiei gardentasun instituzionala eman beharko die, kontratuaren exekuzioa amaitu arte. Ondorioz, eskatzen duten informazioa emango die udalari eta modu arrazoituan eskatzen duten erakunde eta organismo publikoei, gardentasun-printzipioa betetzeko.

Betebehar hori ez betetzea kontratua ez betetzea izango da eta kontratuaren aurrekontuaren % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango da.

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

42. Kontratua aldatzea. (SPKLren 190, 191 eta 203tik 207ra arteko artikuluak)

1. Kontratua perfekzionatu ondoren, interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahal izango da hala aurreikusita baldin badago, edo aurreikusita ez badago, legez aurreikusitako baldintzak eman badira. Hau da:

A) Aurreikusitako aldaketak:

Kontratua aldatu ahal izango da karatulan aukera hori aurreikusten bada eta aldatzeko baldintzak argi, zehatz eta garbi azaldu badira, bai eta aldaketak egiteko irismenak, mugak, eta izaera eta aldaketak egiteko prozedura ere.

Aurreikusitako aldaketen gehieneko muga kontratuaren hasierako prezioaren % 20koa izango da.
Ezingo da kontratuaren hasierako izaera orokorra aldatzen duen aldaketarik egin.

Aldaketarekin ezingo dira kontratuan aurreikusita ez dauden unitate-prezio berriak ezarri.

B) Aurreikusi gabeko aldaketak

Kontratuak aldatu ahal izango dira soilik SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako baldintzak eta mugak betetzen direnean:

2. Prezioa exekuzio-unitate bidez zehazten den kasuetan, ez dira moldaketatzat hartuko prestazioaren exekuzio egokian zehar hasieran kontratuan aurreikusitakoekiko benetan exekutatutako unitate kopuruan soilik izandako aldaketak. Likidazioan jaso ahal izango dira horiek, betiere, gastuaren hazkundea ez bada kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa.

3. Aurreikusitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat eta aurreikusi gabekoak derrigorrezkoak izango dira gehienez ere kontratuaren hasierako prezioaren % 20a aldatzea (BEZik gabe) dakartenean, modu isolatuan edo bateratuan. Kontratistaren aurretiazko audientziaren ostean adostuko dira eta dokumentu administratibo batean formalizatuko dira, hala badagokio, behin betiko bermea egokitu ondoren.

43. Lanak bertan behera uztea.

Administrazioak kontratua bertan behera uztea adosten badu edo bertan behera uzte hori SPKLren 198,5. artikuluan xedatutakoagatik gertatzen bada, akta hartuko da, eta akta hori egiteko arrazoiak eta hura exekutatzeko egoera jasoko dira. Kontratazio-organoaren ordezkari batek, kontratistak eta obra-zuzendariak sinatu behar dute akta hori eta gauzatutako obraren neurketa eta soilik bertan behera utzitako obraren zatian edo zatietan erabil daitezkeen metatutako materialak erantsi beharko dira.

Bertan behera uztea adostu ondoren, jasandako eta behar bezala egiaztatutako kalteak eta ordainak ordainduko dizkio kontratistari udalak, SPKLren 208. artikuluko 2. puntuan adierazitako kontzeptuengandik. Erreklamazioak jartzeko eskubidea urte batean iraungitzen da, kontratistak kontratuaren exekuzioari berrekiteko agindua jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

IFK: P-4800200-J

44. Enpresa kontratistaren oinordetza kontratua exekutatu bitartean.

Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresa-fusioen kasuan, kontratuak indarrean jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo fusiotik sortzen den erakundearekin, eta eskubide eta betebehar guztiak subrogatuko zaizkio. Halaber, enpresen edo haien jarduera-adarren zatiketa-, ekarpen- edo transmisio-kasuetan, kontratuak indarrean jarraituko du sortzen den erakundearekin edo onuradunarekin, eta eskubideak eta betebeharrak subrogatuko zaizkio, betiere, gaitasuna badu, kontratatzeko debekurik ez badu eta esleipena egitean adostutako kaudimena badu. Bestela, operazio horietako sozietate onuradunek eta, iraunez gero, bereizitako ondarearen, enpresen edo adarren sozietateak hartuko dute kontratuaren exekuzioaren erantzukizuna, modu solidarioan.

KONTRATUA AZKENTZEA.

Kontratua betetzean edo bertan behera uztean iraungiko da (SPKLren 209. artikulua).

45.- Kontratua betetzea. (SPKLren 210 eta 235 artikuluak)

Kontratistak kontratua bete duela ulertuko da hark xede osoa gauzatu duenean, kontratuko baldintzei jarraikiz eta Administrazioa gogobeterik baldin badago.

46.- Obren harrera.

Obra amaitu eta hurrengo hilabetean, harrera egingo da ekitaldi formal baten bidez. Harrera-ekitaldian izango dira Administrazioak kontratuaren arduradun izendatutako pertsona edo, hala badagokio, Administrazioak horretarako esleitutako fakultatiboa, obren zuzendaritzaz arduratu den fakultatiboa eta kontratista, hala badagokio, bere fakultatiboarekin. Halaber, kontratuaren arduradunak esku-hartzeari jakinaraziko dio harrera-ekitaldiaren data eta lekua, inbertsioa egiaztatzeko funtzioak betetzera joan dadin. Organo esku-hartzaileak materialki jasoko ditu kontratu guztiak, Tokiko Ogasunen Lege Arautzailearen Testu Bategina onartzen duen 2004ko martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuaren 214.2.d) artikuluak eskatzen dituen inbertsioen fiskalizazio materiala gauzatzeko. Kontratuaren helburuan espezializatutako teknikari batek lagundu ahal izango dio harreran, baina laguntzaile hori ezingo da izan obraren zuzendaria edo kontratuaren arduraduna (9/2017 Legearen hirugarren xedapen gehigarria).

• Obrak egoera onean eta aurreikusitako preskripzioen arabera baldin badaude, Administrazioaren ordezkariak hartutzat emango ditu, eta dagokion akta jaso eta, hala badagokio, berme-aldia hasitzat emango du.
• Kontrara, obrak harrera egiteko moduan ez badaude, hala jasoko da aktan eta zuzendariak hautemandako akatsak adierazi eta beharrezko jarraibideak zehaztuko ditu, epe bat ezarriz horiek zuzentzeko. Epe hori igarotakoan kontratistak zuzenketarik egin ez badu, beste epe luzaezin bat emateko edo kontratua indargabetzeko aukera egongo da.

Espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoiengatik, kontratazio-organoak obrak okupatzea edo publikoki erabiltzeko eskuragarri jartzea erabaki dezake, harrera-ekitaldi formala egin gabe ere. Kasu horietan, harrera-ekitaldiaren berezko efektuak eta ondorioak okupazio eraginkor hori edo eskuragarri jartze hori gertatzen denetik ezarriko dira.

Hala ere, Administrazioaren ordezkariaren txostenaren arabera okerrak edo amaitugabeak diren obren okupazio eraginkorra egiteak edo eskuragarri jartzeak edo behin-behinean erabiltzeak ez du

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

esan nahi obren harrera egingo denik eta harrera-ekitaldiaren berezko efektuak eta ondorioak izango dituenik.

47.- Obra-amaierako ziurtagiria. (SPKLren 198 eta 243 artikuluak)

Harrera-aktaren egunetik hasi eta hiru hilabeteko epean, kontratazio-organoak gauzatutako obren amaierako ziurtagiria onartu beharko du eta kontratistari ordainduko zaio kontratuaren likidazioaren kontura.

48.- Obraren likidazioa.

Bermearen epea bukatu aurreko 15 egunetan, obraren Zuzendaritza Fakultatiboak obren egoerari buruzko txostena egingo du, ofizioz edo kontratistak eskatuta. Txostena aldekoa bada, kontratistak ez du erantzukizunik izango, ezkutuko akatsena izan ezik, 244. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta bermea itzuli edo ezeztatu egingo da, kontratua likidatuko da eta, hala badagokio, egiteke dauden betebeharrak ordainduko dira 60 eguneko epean. Txostena aldekoa ez bada eta antzemandako akatsak obrak egiterakoan egindako hutsen ondorio badira -eta ez eraikitakoaren erabilerarenak-, berme aldiaren barruan Zuzendaritza Fakultatiboak beharrezkoak diren aginduak emango dizkio kontratistari konponketak egin ditzan, eta horretarako epe bat emango dio; lan horiek egin bitartean kontratista arduratuko da obren zaintzaz, eta ez du inolako ordainik jasotzeko eskubiderik izango berme aldia luzatu izanagatik.

49.- Bermearen epea. (SPKLren 210 eta 243 artikuluak)

Kontratuaren helburuak urtebeteko gutxieneko berme-epea izango du, Karatulan edo esleipendunaren eskaintzan epe handiagoa aurreikusten bada izan ezik. Epe hori obren harreraz geroztik hasiko da zenbatzen eta epe horretan zehar Administrazioak egiaztatu ahal izango du egindako lana kontratatutakora eta plegu honetan ezarritakora egokitzen dela.

Berme-aldian zehar, kontratistak betebeharra izango du gauzatutako lanetan egon daitezkeen gabezia guztiak zuzentzeko, izan ditzakeen erantzukizunetatik erator daitezkeen ondorioak edozein izanik ere, plegu honetan eta SPKLn ezarritakoaren arabera.

50.- Behin betiko bermea itzultzea edo ezeztatzea. (SPKLren 111. art)

Kontratistak kontratuaren betebeharrak betetzen dituenean ez bada behin betiko bermearen gaineko erantzukizunik sortzen, hala badagokio, berme-aldia igarotzean, bermea itzultzeko edo ezeztatzeko akordioa egingo da.

Zati baten harrera eginez gero, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea baimenduko da, kontratistak aldez aurretik hala eskatuz gero.

Kontratua amaitzen denetik urtebetera eta berme-aldia amaituta, 1.000.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen kasuan, edo sei hilabetera zenbatekoa kopuru hori baino baxuagoa denean edo lizitatzaileek enpresa txiki edo ertainaren baldintzak betetzen dituztenean, 2008ko abuztuaren 6ko Batzordearen (CE) 800/2008 araudian ezarritakoaren arabera, eta harrera formala kontratistari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik izan bada, bermeak itzuli edo ezeztatuko dira,

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

atzerapen gehiagorik gabe, betiere SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren erantzukizunak izan ez badira.

51.- Kontratua suntsiaraztea eta bertan behera uztea.

Kontratua betetzen den kasuetan ez ezik, kontratua suntsiarazten denean ere bertan behera geratuko da, administrazio kontratatzaileak hala erabakiz gero, plegu honetako Karatulan zehaztutako arrazoiengatik eta honako hauengatik:

a) Kontratista indibidualaren heriotza edo bat-bateko jarduteko ezgaitasuna edo sozietate kontratistako pertsona juridikoak alde egitea, kontratistaren ondorengotzari buruzko 9/2017 Legearen 98. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe.
b) Konkurtso-adierazpena edo kaudimengabeziaren adierazpena izatea beste edozein prozeduratan.
c) Administrazioaren eta Kontratistaren arteko akordioa.
d) Kontratista epeak betetzeko garaian atzeratzea. Edozein kasutan, pleguan edo kontratuan ezarritako lanen plana kontratuaren hasierako epearen herena baino gehiago luzatzea, balizko luzapenak ere aintzat hartuta, inolako justifikaziorik gabe.
e) Administrazioaren ordainketak Legearen 198. artikuluko 6. atalean ezarritako epearen gainetik atzeratzea edo 8. atalean finkatutakoak baino txikiagoak izatea.
f) Kontratatuaren betebehar nagusia ez betetzea.
g) Pleguan, karatulan edo kontratuan ezinbestekotzat sailkatuta dauden kontratuaren gainerako betebeharrak ez betetzea, Legearen 211.1.f artikuluko baldintzak ematen direnean.
h) Prestazioa hasieran adostutako terminoetan exekutatu ezin denean, kontratua 204 eta 205 artikuluen arabera aldatu ezin denean edo, 205. artikuluko baldintzak ematen direnean, aldaketak kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino altuagoak direnean (BEZik gabe), batera edo bereizita.
i) Kontratua gauzatu bitartean, kontratistak horretan parte hartzen ari diren langileei soldata ez ordaintzea, baita langile horiei indarrean diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea ere, kontratua gauzatu bitartean, langileen ordezkariak eskatuz gero.
j) Kontratuan berariaz adierazitakoak.
k) Edozein kastutan, kontratu osagarriak kontratu nagusia ebaztean ebatziko dira.
l) Justifikatu gabeko atzerapena zuinketa egiaztatzean.
m) Obren hasiera bertan behera geratzea lau hilabete baino gehiagoz.
n) Administrazioak obrak bertan behera uztea zortzi hilabete baino gehiagoz.
o) Gaitzestea.

Ebazteko arrazoien aplikazioari eta bere efektuei dagokienez, 9/2017 Legearen 212 eta 213 artikuluetan xedatutakoa beteko da.

52.- Administrazioaren eskumenak.

Administrazioko kontratuak interpretatzeko, hura betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzeko eta kontratuaren exekuzioaren ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna esleitzeko eskumena du kontratazio-organoak. Halaber, kontratuak aldatu ditzake interes publikoko arrazoiengatik eta hura bertan behera uztea adostu edo kontratu horren mugak zehaztu ditzake indarrean dagoen legediaren mugen barruan eta bertan ezarritako baldintzen eta eraginen

IFK: P-4800200-J

arabera. Horrez gain, kontratazio-organoak du kontratua exekutatu bitartean kontratistak egindako jarduerak ikuskatzeko eskumena, lege honetan kontratu mota bakoitzarentzat ezarritako terminoen eta mugen barruan.

Interpretatzeko, aldaketak egiteko eta ebazteko bere eskumenak gauzatzean kontratazio-organoak ezartzen dituen akordioak berehala exekutatuko dira.

53. Datuen babesari eta datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.

A- DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA.
Abanto Zierbenako Udalak erakunde hornitzaileen kontratazioaren eta langileen kudeaketaren arloko datuak tratatzen ditu, kontratazioa behar bezala garatzen eta gauzatzen dela kontrolatzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen arabera. Datu pertsonalak organo judizialei eta auzitegiei, gaian eskumena duten administrazio publikoei eta EBAOri jakinarazi ahal izango zaizkie. Interesdunak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko, Udalaren helbidera edo haz-sac@abanto-zierbena.eus helbide elektronikora jakinarazpena bidaliz, bai eta gardentasun-atarian informazio gehiago emateko ere (www.abanto-zierbena.eus).

B- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAK.
Esleipenduna izango den erakundeak indarrean den araudiaren mende jarriko du datu pertsonalen babesa, eta zehazki honako hauetan aurreikusitakoaren mende egongo da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), pertsona fisikoen babesari buruzkoa, horien datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (datuak babesteko araudi orokorra); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

Datu pertsonalen tratamendutzat joko dira automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, baldin eta horiek ahalbidetzen badute identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsona fisikoei buruzko edozein informaziori eragiten dieten komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien ondoriozko datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, lantzea, aldatzea, blokeatzea eta ezereztea. Kontratuak datu pertsonalak tratatzea edo horietara sartzea badakar (karatularen arabera), erakunde esleipendunak honako arau hauetan xedatutakoa bete beharko du, datu pertsonalak tratatzeko sinatu beharko duen erantzukizunpeko adierazpena alde batera utzi gabe:

1. Kontratistak tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera tratatuko ditu datuak.
2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratuaren helburua betetzeko erabiliko dira soilik eta ezingo dira beste helburu batera bideratu.
3. Kontratu horren ondorioz tratatutako datu pertsonalak ezingo zaizkie hirugarrengoei helarazi. Horretarako, erakunde esleipendunak konpromisoa hartzen du kontratuan sortzen diren datuak edo fitxategiak ez jakinarazteko, transferitzeko, lagatzeko, komunikatzeko edo hirugarrengoei erakusteko, izan ahoz, idatziz, bitarteko elektronikoen bidez, paperean edo sarbide informatikoaren bidez.

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

4. Esleipendunak eta kontratuaren xede-prestazioan esku hartzen duten langile guztiek dute datuak babesteko araudian ezarritako isilpekoa betetzeko betebeharra. Kontratua iraungi ondoren ere, izan bete delako edo bertan behera utzi delako, betebeharrak jarraituko du.
5. Esleipendun izango den erakundeak datuak babestearen arloan indarrean den araudiak ezartzen dituen neurri teknikoak, administratiboak eta antolakuntzakoak hartzeko konpromisoa du, kontratu honen xede-lanak egiteko tratatutako datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko.

a) Horri dagokionez, erakunde esleipendunak bermatu beharko du datu pertsonalak tratatuko dituzten pertsonek konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela.

b) Esleipendun suertatzen den erakundeak segurtasun-neurriak ezarri beharko ditu, zehazten diren tratamendu-zentro, lokal, ekipo, sistema eta programei dagokienez.

c) Kontratuaren xede den prestazioa amaitutakoan, erakunde esleipendunak euskarri guztiak itzuliko ditu, edo datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak suntsitu edo ezabatu.

Erakunde esleipenduna datu pertsonalen lagapen-hartzailea bada, berari aplika dakiokeen legezko betebehar edo gaikuntzaren baten arabera edo datuak babesteko araudian aurreikusitako beste edozein babes juridikoren arabera, Udala eta erakunde esleipenduna izango dira tratamenduaren arduradunak. Horrela, erakunde bakoitza izango da DBEOren printzipioak betetzearen arduraduna, eta interesdunei tratamenduaren berri emango die, kontratuaren edo zerbitzuaren xedearen arabera datuak lagatzeko aukera adierazten duten klausulen bidez.

Interesatuek eta legitimazioa duten pertsonek eskubideak baliatzeko eskaerak egiten badituzte, erakunde esleipendunak horren berri emango dio Udalari, luzamendurik gabe. Karatulan xedatzen baldin bada kontratua gauzatzeko ez dela sarbiderik izango Udalaren titulartasuneko datu pertsonaletara, debekatuta egongo da udalaren titulartasuneko datu pertsonalak tratatzea, horietara sartzea eta ikustea.

Datu pertsonalak ustekabean eta baimenik gabe eskuratzen badira, erakundeak konpromisoa hartzen du ezagut dezakeen informazioaren gaineko sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzeko, bai eta erakunde arduradunaren datuak babesteko ordezkariari gertakariaren berri emateko ere, luzamendurik gabe.

Horrela, erakundeko langileak behartuta daude datuak hirugarrenei ez jakinaraztera, transferitzera, lagatzera edo edonola jakinaraztera, eta betebehar hori izango dute tratamenduaren ardura duen erakundearekin duten harreman juridikoa amaituta badago ere.

Oro har, Udalak ezarritako eta igorritako informazioaren segurtasuneko neurriak eta jarraibideak bete behar dira.

49. Berrezartzeko errekurtsoa.

Errekurtso berezirik izan ezin duten obra-kontratuak esleitzeko prozedura ireki sinplifikatuetan xedatzen diren ekintzei berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaie hilabete bateko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

Errekurtso administratibo hori jartzea aukeratzen ez bada, zabalik geratuko da bide judiziala, administrazioarekiko auzi-errekurtso baten bidez, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako terminoetan.

Administrazio orokorreko teknikaria.

IFK: P-4800200-J

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

IFK: P-4800200-J

I. ERANSKINA

ABANTO ZIERBENAKO UDALAREN AURREAN AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaun/andreak, ... helbidearekin eta ..... NAN zenbakiarekin, bere izenean edo ..... gisa (adierazi ordezkaritza-eskumenak: administratzaile bakarra, ahalduna) eta ..... enpresaren ordezkaritzan, ... helbide sozialarekin, ... IFK zenbakiarekin eta ..... telefono-zenbakiarekin.

HAREN ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU, eskaintza aurkeztu den (*kontratuaren izena jarri*) obra-kontratuari dagokionez:

a) ordezkatzen duen enpresak legez eta plegu honetan ezarritako kontratatzeko baldintzak betetzen dituela eta administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez duela, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikuluaren arabera.

b) Ordezkatzen duen enpresak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela eta EJZn ez duela bajarik eman.

c) Sinatzailea eskaintza aurkezten duen sozietatearen ordezkaria dela, jarduera egiteko beharrezko baimenak dituela eta kontrataziorik egiteko debekurik ez duela.

d) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, pleguan adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak kontratura atxikitzeko konpromisoa hartzen duela.

e) Eskaintza egiteko garaian enpleguaren babesaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenaren babesaren arloan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak kontuan hartu dituela.

f) Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko aurretik aipatutako dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen duela kontratazio-organoak eskatzen duen aldiro, eta, nolanahi ere, esleipen-proposamena bere aldekoa bada. Esleitu aurretik aurkeztuko ditu dokumentu horiek.

g) Kontratuaren esleipendun izanez gero, lizitazio honetako kontratuaren xede-lanak egingo dituzten langileen Hitzarmen Kolektiboa hau izango dela: .....
(*Hala badagokio, sektorea eta lurralde-eremua adierazi*)

h) Halaber, kontratistak konpromisoa hartzen du eskatzen zaion informazio guztia emateko, kontratua esleitu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei dagokienez.

i) Onartzen duela Abanto Zierbenako Udalak gardentasunez tratatzea lizitazio, esleipen eta exekuzio honetatik eratorritako datu guztiak, kontratua amaitu arte.

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

j) Lizitatzailea enpresa elkarte baten parte izateari ala ez dagokionez (markatu laukia):

☐**EZ** da enpresen elkarte batekoa eta ez dago Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluak aipatzen duen kasuren batean.

☐ **BAI**, enpresa elkarte batekoa da eta Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluak aipatzen duen kasuren batean dago.

Baiezkoa baldin bada (markatu laukia):

☐Kontratuaren esleipenera EZ da aurkeztu talde bereko enpresekin edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ustezko kasu alternatiboren batean dagoen batekin, proposamen indibidualak aurkeztu dituzte.

☐BAI, kontratuaren esleipenera talde bereko enpresekin edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ustezko kasu alternatiboren batean dagoen batekin aurkeztu da, eta zehazki enpresa honekin: .....

k) Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan berdintasun-planei buruz aurreikusitako betebeharrei dagokienez (markatu laukitxoa):

☐50 langile baino gutxiago ditu.

☐50 langile edo gehiago ditu, eta ez du emakumeen eta gizonen berdintasunerako planik.

☐ 50 langile edo gehiago ditu eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana du, xedapen horretako 45. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenen arabera.

l) Ordezkatzen duen enpresak (markatu dagokion laukia):

☐50 langile baino gutxiago ditu.

☐50 langile edo gehiago ditu eta (markatu dagokion laukia)

☐Haien artean gutxienez % 2 desgaitasuna duten langileak izateko betebeharra betetzen du, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duenak, ezarritakoa.

☐. Apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan aurreikusitako neurri alternatiboak betetzen ditu. Dekretu horren bidez, desgaitasuna duten langileen aldeko erreserba-kuota modu alternatiboan betetzea arautzen da.

m) ATZERRIKO ENPRESEN KASUAN.
Espainiako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren pean geratzen dela kontratua interpretatzeko, aldatzeko, ebazteko eta suntsiarazteko garaian sortzen diren arazo guztietarako.

IFK: P-4800200-J

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

n) Lizitazio honetarako estatuko eta Europar Batasuneko datuen babeserako araudia betetzeko prest dagoela, 202. artikuluko 1. ataleko azken paragrafoan ezarritakoaz gain.
Halaber, adierazten du datuak jasoko dituzten zerbitzariak …… -(e)n egongo direla (lekua zehaztu) eta horiekin lotutako zerbitzuak …… -(e)tik eskainiko direla (lekua zehaztu), eta kontratua indarrean dagoen bitartean izandako edozein aldaketa komunikatzeko konpromisoa duela.
(Zerbitzariak edo horiekin lotutako zerbitzuak azpikontratatuko badira soilik bete) Zerbitzariak eta horiekin lotutako zerbitzuak …….. enpresari azpikontratatzea aurreikusten dela. (Enpresaren izena edo profila)

ñ) Enpresak kontratuaren zatiren bat hirugarrenei azpikontratatzeko asmoa badu, azpikontratatu nahi den zatia adierazi beharko da, bai eta azpikontratista bakoitzaren eta haien ordezkarien identifikazioari buruzko datuak ere.

Oharrak:
Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, erantzukizunpeko adierazpen bat entregatuko du ABEEko kide bakoitzak eta IV. eranskinean aipatutako konpromisoa gehituko da.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, honako erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du:
……..-(e)n ……(e)ko ……ren ……(e)(a)n.
Sin.:

IFK: P-4800200-J

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

II. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.

..... Jaun/andreak, ... helbidearekin eta ..... NAN zenbakiarekin, bere izenean edo ..... gisa (adierazi ordezkaritza-eskumenak: administratzaile bakarra, ahalduna) eta ..... enpresaren ordezkaritzan, ... IFK zenbakiarekin.

HONAKOA ADIERAZTEN DU HAREN ERANTZUKIZUNPEAN:

I. Abanto Zierbenako Udalak .....-(e)ko obrak egitea helburu duen kontratua gauzatzeko (karatularen arabera) egin duen kontratatuaren deialdiaren berri duela.

II. Ezagutzen eta onartzen dituela obra-proiektua, administrazio-klausula partikularren agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik eta bere gain hartzen dituela.

III. Eskaintza hau aurkezteari dagokionez, ... euroko prezioarengatik egitea proposatzen duela, gehi ..... euro % .....(e)ko BEZagatik, guztira ..... euro. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen dira; zergak, gastuak, tasak eta edozein esfera fiskaleko erabakimenak, baita kontratistaren industriako etekina ere.

IV. Berme-epea ..... urtetan handitzen duela.

OHARRA: lizitazioaren gehieneko tasak gainditzen dituzten proposamenak baztertu egingo dira.

.....(e)n, 202.....(e)ko .....ren .....(e)an.

Sin.:

(ABEEren kasuan)
..... Jaun/andreak, ... helbidearekin eta ..... NAN zenbakiarekin, ... enpresaren izenean eta ordezkaritzan, ... helbide sozialarekin eta ..... IFK zenbakiarekin, % ..... -(e)ko parte-hartzea izanik, eta ..... jaun/andreak, ... helbidearekin eta ..... NAN zenbakiarekin, ... enpresaren izenean eta ordezkaritzan, ... helbide sozialarekin eta ..... IFK zenbakiarekin, % ..... -(e)ko parte-hartzea izanik,

GURE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUGU: (Proposamen ekonomikoaren ereduan dauden puntuak transkribatuko ditugu).

IFK: P-4800200-J

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

III. ERANSKINA

KONTRATUAREN LIZITAZIOAN EMANDAKO INFORMAZIOARI DAGOKIONEZ ARGIBIDEAK ESKATZEKO EREDUA.

Kontratua:
……

ESP. ZK.: ……

…… jaun/andreak, …… NAN zenbakiarekin, bere izenean edo …… enpresaren ordezkaritzan, …… helbidearekin, …… telefono-zenbakiarekin, …… fax-zenbakiarekin eta …… helbide elektronikoarekin

ESKATZEN DU:

Erreferentziazko kontratua lizitatzeko emandako dokumentazioaren gainean sortutako zalantzak argitzeko:

KONTSULTA	DOKUMENTUA, KLAUSULA ETA ORRIALDEA

OHARRA: Kontsultak eredu horren arabera eta formatu editagarrian bidaliko dira helbide elektroniko honetara: contratacion@abanto-zierbena.eus. Eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 9 egun natural lehenagora arte bidali ahal izango dira eta epe hori baino 6 egun natural lehenagora arte erantzungo dira.

IFK: P-4800200-J

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

IV. ERANSKINA

ABEE ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

..... jaun/andreak, ... helbidearekin eta ..... NAN zenbakiarekin, bere izenean edo ..... gisa (adierazi ordezkaritza-eskumenak: administratzaile bakarra, ahalduna) eta ..... enpresaren ordezkaritzan, ... helbide sozialarekin, ... IFK zenbakiarekin eta ..... telefono-zenbakiarekin,
ETA

..... jaun/andreak, ... helbidearekin eta ..... NAN zenbakiarekin, bere izenean edo ..... gisa (adierazi ordezkaritza-eskumenak: administratzaile bakarra, ahalduna) eta ..... enpresaren ordezkaritzan, ... helbide sozialarekin, ... IFK zenbakiarekin eta ..... telefono-zenbakiarekin,

ADIERAZTEN DUTE:

Aldi Baterako Enpresa Elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela, dagozkien partaidetzekin: %..... eta %....., eta..... jauna/andrea ordezkari edo ahaldun bakar izendatzen dutela, kontratutik eratorritako eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoarekin, kontratua amaitu arte. Lizitazio honetarako, jakinarazpenetarako helbidea hau izango du: .....

Eta adierazpen honekin ados gaudela frogatzeko, ... -(e)n sinatu dugu 20..-(e)ko .....-ren .....-(e)an.

Sin.: Sin.:

IFK: P-4800200-J

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

IFK: P-4800200-J

V. ERANSKINA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN AITORPENA

(Proposatutako esleipendunak aurkeztu beharrekoa)

..... jaun/andreak, ... helbidearekin eta ..... NAN zenbakiarekin, bere izenean edo ..... gisa (adierazi ordezkaritza-eskumenak: administratzaile bakarra, ahalduna) eta ..... enpresaren ordezkaritzan, ... helbide sozialarekin, ... IFK zenbakiarekin eta ..... telefono-zenbakiarekin,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU, HAREN ERANTZUKIZUNPEAN:

1.- Tokiko zerga-ordainketaren arloan aplikagarria den indarreko araudiaren arabera, eta, zehazki, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duenaren arabera, zerga honetan alta-aitorpena aurkeztu behar duela honako epigrafe hauetan, eta dataren egunean ez duela baja eman epigrafe honetan:

2.- (adierazi dagokion aukera):

- ☐ Zerga ordaintzera behartuta dagoela, eta erkatutako azken ordainagirien kopiak eransten dituela.

- ☐ JEZren 1989ko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bateginean jasota dagoen 5.1 g) artikuluaren salbuespen-kasuaren barruan dagoela.
  (Jarduera hasten duten subjektu pasiboak, zerga hori ezartzeko lehen bi aldietan zehar).

- ☐ JEZren 1989ko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bateginean jasota dagoen 5.1 h) artikuluaren salbuespen-kasuaren barruan dagoela.

(2.000.000 eurotik beherako operazio-bolumena duten subjektu pasiboak).

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, honako erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du:

……..(e)n, 202…..(e)ko ……..ren ……(e)an.

Sin.

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

IFK: P-4800200-J

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

VI. ERANSKINA

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA:

(Lizitatzaileek aurkeztu behar dute beharrezkoa irudituz gero)

..... jaun/andreak, ... helbidearekin eta ..... NAN zenbakiarekin, bere izenean edo ..... gisa (adierazi ordezkaritza-eskumenak: administratzaile bakarra, ahalduna) eta ..... enpresaren ordezkaritzan, ... helbide sozialarekin, ... IFK zenbakiarekin eta ..... telefono-zenbakiarekin,

ADIERAZTEN DU:

A fitxategiko dokumentuak (II. modalitatea) konfidentzialak direla, eskaintzaren informazio eta dokumentu hauek (adierazi zer orrialdetan dauden) isilpeko tekniko edo komertzialei eragiten dietelako (edo, hala badagokio, beste konfidentzialtasun arrazoi bategatik)

.....

.....

.....

IFK: P-4800200-J

……..(e)n, 201…..(e)ko ……..ren ……(e)an.

Sin.

OHARRA: Konfidentzialtasunaren adierazpena ezingo da enpresak aurkeztutako dokumentazio guztietara zabaldu, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzen duen dokumentazio guztira ere. Kasu honetan, edo adierazpen hori ez bada modu egokian dimentsionatzen, kontratazio-organoak zehaztuko du zer datu eta/edo dokumentu diren konfidentzialak.

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Idazkaritza \ Secretaría
Meatzari etorbidea, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación
MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD

IFK: P-4800200-J

VII. ERANSKINA

ATZERRIKO ENPRESEK EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

(Proposatutako esleipendunak aurkeztu beharrekoa)

Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Espazio Ekonomikoari buruzko akordioa sinatu duten estatu kideetako enpresa ez espainiarrek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute kontratua esleitu aurretik edo eskatzen zaien edozein unetan:

1. Enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu behar dute erregistro profesional batean izena emanez edo Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztuz. Hori guztia gaztelaniara edo euskarara itzulita ofizialki.

2. Lizitatzaileak ez badu bere izenean jarduten edo ez bada pertsona juridiko bat, nahikoa botere duela egiaztatu beharko du eta gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko da baita ere ofizialki.

3. Euskarazko edo gaztelaniazko aitorpena, Gertakari guztietarako ordena orotako Espainiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende geratzen dela, eta, hala badagokio, dagokion atzerriko foru jurisdikzionalari uko egiten diola zehaztuz.

4. Enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egunean dituela egiaztatzen duen estatu kide horretako autoritate eskudunak igorritako ziurtagiria, gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulia, botere adjudikatzailearen estatuko lege-xedapenen arabera.

Europar Batasuneko estatu kideetakoak ez diren atzerriko enpresek hau egiaztatu beharko dute aurreko ataletan ezarritako baldintzez gain:

a) jarduteko gaitasuna, dagokion estatuko Espainiako enbaxadak igorritako ziurtagiriaren bidez. Bertan jaso beharko da tokiko erregistroan, erregistro profesionalean, komertzialean edo analogoan izena emanda dagoela edo, hala badagokio, kontratuaren xede-jardueren arloko tokiko trafikoan maiz jarduten dutela. Europako Espazio Ekonomikoari buruzko hitzarmena sinatu duten estatuen kasuan, jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute.

b) bere jatorrizko estatuan modu analogoan onartzen dela Espainiako enpresek administrazioarekin kontratazioak egitea. Hori Espainiak atzerrian duen Bulego Ekonomiko eta Komertzialaren txostenaren bidez justifikatuko da.